

**EUSKARAZKO GAZETARITZAREN  
AGERPENA ETA HAREN LOTURA  
FRANTZIAKO POLITIKAREKIN**  
**Aparición de la prensa periódica en euskara  
y su conexión con la política francesa**

**Xabier Altzibar**

Euskal Herriko Unibertsitateko Irakasle Doktorea

---

---

XI Congreso de Estudios Vascos:  
«Nuevas formulaciones culturales Euskal Herria y Europa». Donostia., 1991  
ISBN: 84-87471-35-8  
Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1992. p. 173-178

Gazetagitza, liburugintzaren hedapen gisa sortua, Europa mendebaldeko gizarte laiko eta hirritarrarekin batera garatu da Masa-komunikabide gisa, zehazkiago, gizarte industrialeko masa-kulturako fenomeno bat dugu, XIX mende erditsutik aurrera abiatzen dena, aurkikuntza tekniko garrantzitsu batzuen eskutik (burdinbidea, telegrafoa, errotatiba e.a.). Benetako gazetaritza hau hizkuntza handietan gertatu zen Euskararen kasuan, ordea, gazetagitza askoz apalagoa izan zen eta eskualde txiki bateko bi edo lau orriko hileroko edo asteroko bat edo bestera mugatua. Iparraldeko Euskal Herrian, hegoaldekoan ez bezala, dirudienez, euskara etxean eta elizan ez ezik eskoletan ere irakurtzen eta idazten irakasten bide zen frantsesaren parean, eta hauteskunderie begira eta borroka ideologiko-politikorako tresna egokia izan zitekeela ohartzean sortzen da euskarazko gazetaritza hango hiri nagusian, Baionan. Forma demokratikoen garapena eta iparraldeko euskaldunek euskarazko idazkiak irakurtzeko ohitura handiagoa eta frantsesaren beranduko nagusitasuna izan daitezke gazetaritza ifarraldean eta ez hegoaldean agertzeko arrazoi batzuk Frantziako gatazka politikoei lotuta dago, bada, euskarazko gazetagitza agerpena.

Lehen urratsa Augustin Xaho zuberotar euskaltzale eta abertzale, gazetari eta politikari errepublikazale ezkertarrak egin zuen 1848ko ekain-uztaillean, Iraultzaren gerizapean, *Usual Herrico Gaseta* asterokoa (asmoz behintzat) eta bizitza laburrekoa atera zuenean. Bere *Ariel-en* anaia bizkia zen, zubereraren oinarritutako euskara modu batean idatzia eta laborariei bereziki zuzendua, gazeta egilea hautagai baitzen. Duela urtebete eman zuen honen berri B. Oihartzabalek P. Altunari eskainitako Omenaldi liburuan eta ez gara gehiago honetaz ariko.

Hurren urratsa handik eta ia 30 urte geroago egin zen 1870ean Napoleon III.a erori eta III. Errepublika etorri zenean ondorengo gatazka politikoek oldar berri eman ziotelarik gazetaritzari Frantzia guztian eta Ipar Euskal Herrian Bai errepublikazaleek, bai bonapartzaleek gazetak sortu zituzten Ipar Euskal Herrian, astekariak gehienak, Baionan batez ere, baita Miarritzen, Donibane Lohitzunen e.a. Euskal Herriak kanpo baina departamendu berean. Paben, noski adibidez *Le reveil basque* bera; Paben baita egunkariak, esaterako *Mémorial des Pyrénées*, non euskarazko idazkiak ere atera baitziren.

Garai honetako Ipar Euskal Herriko gazetaritza eta bereziki euskarazko gazetaritza ulertzeko kontutan izan behar dira III. Errepublikaren politika eta hango ekonomi eta gizarte egoera. III. Errepublika erregetiar, bonapartzale eta kontserbakorren aurka ari zen. Elizgizonak ez zuten Errepublika onartzen eta gobernaren legeak bereziki fraide eta serorak erasotzen zituzten hauek eskoletatik kanpo ezarriaz e.a. 1892an Aita Santuak, Leon XIII.ak Errepublika onartzeko agintzen die eliz-

gizonei eta hala egiten dute gehienek. Nolanahi ere, erlijio «gudaldi» edo bederen gatazkek 1911 arte irauten dute.

Guzti honek euskararekin lotura handia du: 1880an J. Ferry-ren lege batek euskara eskolatik kanpo ezarriko du —arte euskara eskoletan irakasten baitzen—. Aitortu behar da II. Inperioak irakaskuntza elebiduna bultzatu zuela eskoletan (hegoaldean gertatu ez zena mende bukaera arte edo) eta III. Eta IV. Errepublikak, aldiz, euskararen etsai izan zirela. Honek ez du esan nahi, beste gabe, Iparraldeko euskaldun errepublikazaleak euskararen aurka aritu zirenik: aitzitik, hor dugu Xaho lekuko, euskararen egoera hain latza izan ez zen garaian, eta lokabide honek izan zuen zorionez segidarik errepublikazaleen artean, ikusiko dugunez. Krisialdi hontan, bada, erlijio eta euskararen arteko lotura gogortu zen eta euskara eskola giristinoetan ahal zen tokian irakurtzen eta idazten irakastea elizgizonen borondatezko ardurapean eta eskutan gelditu zen. Ordea, krisialdi hontan elizgizon aunitzek idatzi zuen euskaraz, otoitz-liburuak ez ezik saio, iritzi eta politika-liburuak, bala nola Mixel Elizanburu (*Frantziako hirur Errepubliken ixtorioa laburzki*), D'iharasarry apaiz eta hautagaiak berak (*Aphezen dretchoac eta eginbideac eletzionetan*, baita *Erlisionearen ixtorioa laburzqui* eta beste bi, hirurak Baionan atereak 1890ean), Arbelbide Hazparneko misiolariak (*Erlisioea eta igandea*, biak Lille hirian atereak, Desclee de Brouver, 1890 eta 1895), Joanategi e.a. Antzera jokatu zuten hegoaldean liberalismoaren aurka: apa ditzagun, adibidez, *Liberalen dotriña pecatu da* eta *Bai, pecatu da liberaiqueriya* (Baiona, 1888) liburuak. Baina batez ere *Eskualduna* gazetan plazaratu zituzten iparraldekoek, xuri edo Errepublikaren aurkakoek beren politika irizpide, jokabide eta iharduera.

Bestetik kontutan izan behar da ere ipar Euskal Herrian itsas hegitik barneruntz laborantza zela gehienetan lanbidea eta laborariak zirela bozemailen artean gehienak, eta, beraz, haien interesen izenean ihardun behar zutela gazeta-egileek Gazeta-egile hauek hautagaiak edo hauei lotuak izan ohi zirenen.

Honenbestez, esan behar da iritzi-gazetaritza nagusi dela garai honetan Frantzian, Espainian eta herri latindarretan bezala, eta beraz Ipar Euskal Herrian. Aldizkariotako sail iraunkorretako idazburuak irakurrita garbi ikusten da irakurle eta hautesleen persuasioa eta haiekiko harreman estuak bilatzen zirela, etsaiekiko burrukalariak eta erasokorra izanez.

Errepublikazaleek, bada, *Le reveil basque* sortu zuten 1877an, Paben ateratzen zen astekari elebiduna, M-H. Berdoly hautagaia zela zuzendari. 1894era arte iraun zuen eta handik lau urtetara *Le P. Basque / Eskual-Herria* «gorrikumea», elebiduna hau ere, hasi zen haren tokia betetzen, Baionan aterea eta beste Berdolytar batek zuzendua hau ere. Biok

antzeko formato eta lau orrialdekoak. Biak Xaho-ren *Ariel-en* idotik.

Elebidunak direla astekari errepublikazaleok esan dugu. Hala ere, *Le reveil basque* delakoan gorabehera nabarmenak daude euskararen erabilerari dagokionez, hasieran (1876-77) lehen orrialdean, adibidez, frantsesezko artikulua nagusi dira, franko aldiz euskarazko idazkiak frantsesezkoen itzulpen izanik; aurki, hala ere, lehen orrialdeko gunerik handiena euskarazko iritzi-artikuluek —eta ez itzulpen zirenek— beteko dute, geroago, aldiz, astekarian euskarazko artikulua gero eta gutxiago dira; eta bukaeran, 1894 inguruan, bat edo beste soilki, eta berori laborantza, merkatuetako salneurri edo antzeko gaiez, edo Ameriketako euskaldunen berriak (Goitinek bidaliak Ipar Ameriketatik, are Ameriketa Behereko berriak).

Euskarazkoen artean ohargarri da *Eskualduna-ri* buruz eginko artikulua, alegia, erlijioa eta apaizak nola tratatzen zirenen astekari horrek.

Baina bada besterik ere *Le reveil basque-n*, tradiziozko kultur ekintzen berri ematen baita astekarian, nahiz eta frantsesez izan, bereziki pastorales. Gainera «Feuilleton» gisako bat ere maiz ageri da *Le reveil basque-n* euskaraz eta bertan Elizanbururen *Piarres Adame* nobela, zatika edo epeka, haren beste zenbait neurritz, Etxahun, Befiat Mardo eta beste batzuen bertsoak, eta beste hainbat, hauteskunderen karietara zuzenduak, izengoitidunak edo izengabeak gehienak («Biba Berdoly! Kuku Etxeberry!», adibidez), baita Sailaberry-ren liburutik (*Chants populaires du Pays Basque*) ateratako kantu mordoak ere. Eta, azkenik, izkimiriak, irri-egingarriak edo drolekenak.

Baina euskarazko gazetaritza honen indarrezko agerpena «xuriek» *Le reveil basque* delakoari erantzunez beren interesen defentsa egiteko eta euskaldun laborariei zuzentzeko euskara tresna politiko garrantzitsu gisa erabiliz *Eskualduna* (aurki *Eskualduna, k-rekin*) hamabosterokoa (eta aurki asterokoa) sortu zuenean 1887an gertatzen da.

*Eskualduna* aldizkari zinez garrantzitsua dugu, euskal gazetaritzaren hasiera honetan garrantzitsuena. Iparraldean XIX. mende bukaerako krisialdi historikoan sortu, eta bi Mundugerlak igaro baitzituen. Beraz luzaz iraun zuen astekaria izan zen (1887-1944). Bestalde, eragin handikoa gertatu zen Iparraldeko gizartearen elizgizon, laborari eta euskalzaleengan.

Nork eta nola sortu eta abiaerazi zen? *Eskualduna* Louis Etcheberry, Donazarharreko deputatu «xuriak» sortu zuen *Le reveil basque* delakoaren aurka aritzeko. Bera zen jabea eta Arnaud Pochelou jerentea eta idazlarien zuzendari gisa aritu zena gazetaren lehen aldikadan, Hiriart-Urruty baino lehen..

Etxeberri jarri zuen dirua. Idazlariz eskas zebilenez, Larresoroko seminariora jo eta han aurkitu zituen batzuk. Beste batzuk ere bildu zituen: hiru errieta edo maisu, bi fraide (Juvénal, Frère Innocentius) eta zenbait apaiz (Ithurri) baita zenbait jaun (Duvoisin, Agustin Etxeberri e.a.). Geroxeago ere jo zuen berriz Larresorora eta horko Arnaud Abbadie eta Bialse Adema bildu zituen, azken hau *Eskualduna-ren* zuzendaria 1916-1925 bitartean, baita Hiriart-Urruti, ordura arte frantsesezko *La Semaine* astekarian aritu zena idazten.

1887ko martxoaren 15ean atera zen lehen zenbakia hau du izenburu: *Eskualduna - Le Basque*, Journal Basque-français, paraissant le 1.<sup>er</sup> et le 15 chaque mois (aldizkari frantses-euskalduna, hilaren lehenengoan eta hamabostean agertzen dena).

Lehen zenbaki honetan azaltzen da programa, L. Etcheberryk berak izenpetutako lehen artikuluan: «Notre programme / Gure iracurzaler». Hor agertzen dira aldizkariaren ideologijez nagusiak. Tradizioaren aldekotzat jotzen du bere burua eta tradizio edo «Eskual herriko erakuspen zahar», horien artean eta ororen gainetik erlijio katolikoarekiko estekamendua. Bere xede nagusia erlijioa osoki libre izatea bere eskubide eta iharduera guztietan. Bigarrenik, euskal laborarien interesak, lazki koipatuak sortzailearen ustez. Gazetaren politikalerro nagusiak euskal herriaren edo euskal gizartearen demokraziako eta aldi berean autoritatezko nahikuntzetan iradokitzen dira. Euskaraz dakarren moduan jasoko dugu:

«Eskualdunak nahi ditu hirur autoritate: aita familiakoarena, bere etxean; aphezarena, erlijioneari behatzen diren kestone guztietan; Gobernioarena, bi jadanik aipatu autoritateak begiratzen eta estaltzen dituelarik bere indarrak.

Yinkoari esker, aita familiakuek eta aphezek, baxhotxak beren herronkan, badute Eskual herrian autoritate ezagutua. Bainan Gobernioak ez du, edo duena zerbitzatzen da, bere obligazioneri huts eginez, aita familiakoaren eta aphezen kontra.

Behar ginuke Gobernio bat azkarra eta justoa. Bethi eta gehiago Errepublikak frogatzen du ez dela kapable ez azkartasunaz ez justiziaz. Beharko dugu establitu bertze Gobernio molde bat. Biga badire guztientzat errespetagarriak, Erregearena eta Enperadorearena. Egun batez Frantziak, bozkatzeko jeneral eta direkto batez galdeginen du bat edo bertzea. Gure tokiko intresentzat guziz ona izan delakotz, nahiago ginduke hautatua izan dadien Emperadorea.

Horra, hitz gutiz, zer egingo dugun. ... Etxeko jaun eskualdunak! Zuentzat da kaseta berri hau. »

Bigarren zenbakian idazketa plangintza agertzen du: *Eskualdunak* bere burua gazeta politikotzat ikusiz «makila» bezala ihardungo duela adierazten du etsaien asmo txarrak jartzeko (eta hala egin zuen, «ministrari hargin beltz» edo frama-zonen aurka etengabe arituz, erlijioa nola eskolatik kanpo ezarri zuten salatuz e.a.). Hots, gobernu errepublikarra ez duela onartzen erlijioari guda eta honen ministrariei eraso egiten dielako, familien eta komunien eskubideak hezkuntza kontuan erazuten dituelako, gutxiengoak zapaltzen dituelako, dirua erruz eta burugabe eralgitzen duelako, ministrariet egonkortasunik eta Legebiltzarrak ahalik ez duelako. Hala ere ez da gazeta politiko hutsa, bidenabar esan dezagun: are gehiago, ez du politika egin nahi gehiegi, eta egitekotan ere gordezale edo kontserbatzaile orok onar dezaketen politika egin nahi du, hau da, laborantza, hezkuntza, erlijio, gizarte eta jendeari axola zaizkion gauzez ihardun nahi du. Dio, gainera, Suiza, Austria eta Alemanian elizgizonak, Frantzian baino libreago baitziren, herrialde horietako prentsa sortu dutela, eta zinez prentsa herrikoia, eta horregatik mantendu duela berorrek izpiritu publikoa. Hau guztia esaten da 1888ko 43. zenbakian, martxoaren 16koan). Beraz ez da politikoa hutsik, erlijio zerbitzuak ere eskainiko ditu (hala nola, igandeko prediku gisako bat), baita laborantzakoak, ikasbideak eta teknika berriak azalduz (adibidez Duvoisin-en *Laborantzako liburua* zatika eta epeka aterako da), baita gertaera ekonomiko garrantzitsu eta beraientzat eraginkorren berri, merkatuetako salneurriak e.a. Baita asti orduetarako atsedean hartzeko izkimiriak, kontutxoak, ixtorioak, euskal nahiz frantses elezaharrak e. a. Tokian tokiko gertaera eta arazoek ere leku handia beteko dutela adierazten da, eta hala da, eta azkenik —nola ez!— Ameriketako berriak, ia sendi guztietan seme-alabaren bat han baitzuten edo han egona baitzen.

Sail nagusi eta iraunkor batzuk aipatzekotan, tori honako hauek idazpuruen araberak: Asteko berriak, igandeko berriak, Laborarier, Eskual-herria (herrietako berri eta kronikak euskaraz), Nouvelles du Pays (frantsesez). Espero zenez, ohargarria da gazeta errepublikazaleetan Frantzia eta bereziki Pariseko berri eta, noski, legeak gehiago eta zehatzago datozela.

Aisia eta kultura arloan aipagarriak dira bereziki bertso eta neurtitzak: *Le reveil* basquearen aurkakoak, Zaldubirenak, Leon Elizanbururenak. Are hegoaldekoen bertso eta neurtitzak (Arrese Beitia, Azkue, Zamarripa, Arzak..), liburu erreseinak (Ithurri-ren Gramatika), euskarari dagozkion kontuak (ortografia e.a).

Gazetak eraskin edo «Suplemento» batzuk ere ateratzen ditu noizean behin, euskaraz puska handia. Ipuin itxurako kontraera eta iruzkin politikoak eta beste. Hor ageri dira baita Duvoisin-en ipui batzuk, «Baigorriko zazpi liliak» deitu bilduma-koak.

Ez da ahaztekoa euskarak toki handia duela gazeta honetan: 1. orrialdean zutabe bat eta gehiago euskaraz idatziak dira normalki. Eta bai «Asteko berriak», «Iganteko berriak», «Laborarier», «Eskual Herria»...

*Eskualduna*-n aldikada batzuk bereiz daitezke garbi asko Hasieran, hots, lehen 10 zenbakiak hamabostero atera ziren. Berauen formatoa *Le Reveil-ena* bezain handia zen (48 x 34), 10.etik aitzina txikitu zelarik (46 x 29), 4 plama edo orrialde izanik. Lehen aldia hasieratik 1901-2 artekoa dugu. Garai honetan astekariak gobernu errepublikarra ez du onartzen eta haren aurka ari da, esan bezala, baina ez du gora egiten. Batetik, lauzpabost urteotan irakurleak, ez ditu gehitzen: 850 ingururekin hasi eta 1891ean 1300 baino ez ditu. Bestetik, urte horretan apaizen artean gatazkak sortzen dira, gobernuak —haren gain baitzen orduan apaizei ordaintzea— eliz-barrutiko 35 apaizi urtesaria kendu baitzien hauteskundeetan errepublikaren aurka agertu omen zirelako. Hau eta «Elkarteen Legea» zela bide *Eskualduna*-k Jauffret apezpikuarekin istiluak izan zituen, idazlari batzuek —horien artean Dihartze bikari jenerala— apezpikuaren jokabidea gaitzetsi baitzuten. Apezpikuak Ipar Euskal Herriko eliza guztietan irakur arazi zuen *Eskualduna* gazetaren kondena. Gainera, Aita Santuak Errepublika onartzeko agintzen die elizgizonei, esan bezala, eta Larresoroko apaiz idazlari batzuek (Abbadie, Hiriart Urruti) men egiten dute baina L. Etxeberri ez du jokabide hori onesten eta kinka larri honetan berak sortutako eta bere jabetzako gazeta uzten du, Renaud Elissagaray bilakatzen delarik buruzagi, eta aldi berri bat hasten da. Orduan Hiriart Urrutik idazlari zenbaitekin aurpegi berri bat eman nahi dio gazetari, aidatuz berori, izenetik hasita: hemendik aitzina *Eskualduna* deituko da, formato berrian aterako da, hegalak zabalduz (50 x 32 zm, 4 plama). Gainera mamia aberastuko du, eta euskarak toki gehiago izango du. Langile berriak bereganatuko ditu, bai zuberotarrak (Constantino, Espil), bai lapurtar eta behenafartarrak: Hegi, Jean Etxepare, Landerretxe, Lakonbe, Daranatz) eta saltzaileak ere bai. Eta irakurle goaren barrera eta salmenta gora-gora joanen da: 1904ean 1700, hurren urtean 5.000 eta ondoko bietan 7.000 aletaraino iritsiko da. Luis Etxeberri 1907an hil zelarik, haren andre alargunak *Eskualduna* titulua eskaini zien *Eskualduna*-ren egileei, eta hauek berriro hasi ziren *Eskualduna* izenekoari segida ematen, formatoa berriz aldatuz (56 x 38 zm.).

I. Mundu-gudaldi garaian gazetak beherakadaxo bat du: 1915ean. Hiriart Urruti hil zelarik, Blaise Adema kargutzen da gazetat. Hurren urtean, 1916an, formato handian ateratzen da eta orri bakar bat, baina berriro itzultzen da aitzinagokora,

nahiz orri bakarra mantendu Geroago, 1932 aldean, itzuliko da berriz formato handira eta 2 orritara, argazkiak jarri e.a.ii. Mundu-gudaldian ere aterako da 1942-3-4ean. Azken urte honetan formato txikian. Azken ale edo zenbakia 1944eko abuztuko 18koa dateke, gazetaren 3.309.a, Frantzia osoaren askapen bezperakoa.

Hiriart Urruti izan zen *Eskualduna*-ren arima. Gazetako idazlari nagusi eta apaintzaile, eta Poxelu ondoren 1903tik aitzina gidatzaile edo zuzendaria hil arte (1915).

Euskara kezka bizia bihurtuko da H. Urrutirentzat, bai elizan predikuetan erabilia eta eskoletan irakatsia izan dadila nahi duelako, eta bai euskara garbia nahi duelako eta ez delako egundo onartuko ez mordoilokeria eta ez Aranatar labeko hitz berririk ere (ik. 477 zenb., «Eskuara Frantzian»; 484. zenb., «Eskuara garbi»; 485, «Eskuara eskoletan» hirurak 1896koak).

Gazeta-mintzaira ulerterraza nahi zuen hitz zaharregi ez berriegirik gabe. Horregatik, berak esandakoaren aurka agian, behartuta edo erdaratiko hitz franko sartu zituen.

J. Hiriart Urruti, iritzi artikulugintzan eta estiloan maisu dugu. Adibidez, artikuluen egitura taxutzerakoan sarrera, garapena eta bukaera indartsua. Garapena maiz elkarriketa bidez, edo elkarriketan baleude bezala idazlea eta beste norbait. Hau asko erabili zen hegoaldean ere, Lizardi e.a., nahiz egun ez den holakorik ikusten. Zer esanik ez, dialogo forma irizpideen arteko gudua eta norgehiagoka adierazteko eta gartzeko egokia da.

Estilo landu eta berezia du orotariko baliabideak erabiltzen ditu, hizkuntzarenak (hitanoa, hitz adierazkorak, hitz ordena eta joskeran zalutasun handia du, batez ere aditza hemen ken, hor sartzeko, hitz eta esapideetan ere hizkuntza guztietakoak erabiltzen ditu (frantsesezkoak, latinekoak, gaztelaniakoak, euskarazko erdarakadak, esaera herrikoiak, e.a.), gehienetan funtzio adierazkorrean eta kurtsibaz. Aberatsa da erretorika baliabideetan (hitz jokuak eta denetariko errepikapenak, irri nahiz eraso egiteko era eta molde guztiak e.a.) frantses iturriko erretorika baliabideak ongi ezagutzen baitzuten

Harrigarriko elhasturia laburtasuna eta trinkotasuna, zalutasuna eta bizitasuna erakusten du. Lafittek dioenez, Hiriart-Urrutik «zumea bezala zerabilen eskuara, aldarte arau». Irakurleak ez zituen behinere aspertzen. Lafittek berak aholku bat ematen digu bere *Zer edo zer* Hiriart Urruti-ren antologia-txoan (1944): «ez baxharrik begiz irakur, baina ahalaz gora-gora mintzatzean bezala ahoskatuz». Baita ondoko hau ere: «Eskuara garbia erabili behar duten guziek (ala predikari, ala liburu edo kazeta egile) on lukete Hiriart Urruti zenaren laneti ohartzea eta jarraitzea». Gogora dezagun P. Lafitte bera ere kazetaria izan zela, *Eskualduna*-ren jarraitzaile zen *Aitzina*-ren zuzendaria.

Hiriart Urrutik idazle-eskola sortu du (Etxepare midikua, Lafitte...) Lapurteraz idatzi zuen, behenafarreraz osatua.

Nolanahi ere, euskarazko prosagintzan *Eskualduna* eta bereziki Hiriart Urrutik trebakuntza handia erakutsi zuen, erdugarri dugularik.

Orain arte aipatu gazetak alde bat utzita, frantsesezko egunkari zein aldizkan zenbaitetan ere agertzen dira euskaraz idatzitako iruzkin, bertso eta puskek, interes literarioak. Adibidez Duvoisin-ek *Le Messager de Bayonne* delakoan euskal neurtitzen aipamen eta iruzkin kritikoak egiten ditu.

Almanakak edo urtekariak ere aipagarriak dira. Ulibarri, Bilboko Abandon bizi zenaren asmoko eta ustezko urtekariaren —*Egunaria* deitzen zuena—, berri zehatzik ez dugula, Jan Battit Etxeberri apaiz bertso ontzale eta euskal idazle behena-fartarraren *Escualdun laborarien adiskidea*, 1848an aterea Baionan (Lasserre baitan) dugu lehena eta luzaroen iraun zuena, 49 atera baitzuten... Bera hil arte agerterazi zuen, 20-24 plamarekin. Gero Martin Landerretzek eta ondoren Etxepare anaiek apailatu eta 1914eko gudaraino iraun erazi zuten.

Geroago, III. Errepublikara garaietan Duvoisin-ek ere atera zuen almanak edo urtekari bonapartezale bat 1884etik 1887raino *Escualdun Almanac eta Egunari berria (1884...)* urteraco, eta hortik aitzina *Eskualdun gazetaren almanaka* bilakatu zen, Duvoisin gogaide baitzen. «Gorriek» ere, hots, *Le reveil basque*-koak, Berdoli eta Vinson zirela eragile, atera zuten berea, *Almanaka berria 1879tik-1890eraino*. Zuberotarrek ere

bai: *Almanak edo Armanak uskara*, 1887tik 1891 eraino agertu zena. Zuberoan hasi zen ere argitaratzen *Fedearen propagacioneco urtecaria*, gero Basilio Joanategik artatua 1891etik aitzina. 1877tik hasita 1914eko gudaraino landa *Eskualduna* gazetak jalgi zuen bere *Almanaka* eta *Gure Herria-k Gure Almanaka* deitzen zuena, 1925etik hona biek bat egin zutelarik.

Euskal Herritik landa atzerriko euskaldunek Ifar Ameriketara ateratako gazetak ere, euskal komunitateari zuzenduak, Iparraldeko tradizioari jarraitu zitzaizkion. Aipagarriena *California-ko Eskual Herria asterokoa* dugu. Goitino notariak sortua (esan dugu Goitinok. *Le reveil basque* astekarira Ameriketako berriak igortzen zituela). *Californiako Eskual Herria euskara* hutsean eginiko lehena dugu, ahozko lapurtera hiritarrean idatzia da, bi mila aletara iritsi zen eta zazpi urtez iraun zuen (1893-1898).